

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko azaroaren 30etik abenduaren 6rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/11/2019

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2019ko azaroaren 22koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez zuzentzen diren 2019ko uztailaren 12koaren akatsak. Horren bitartez, asistentzia eta haur hezkuntzako zentroen XII. hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen da. **2019-17278 xedapena - 1 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/12/05

- Ebazpena, 2019ko azaroaren 26koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den Futbol Profesionaleko Liga Nazionalaren hitzarmen kolektiboa. **2019-17589 xedapena - 40 or.**
- Ebazpena, 2019ko azaroaren 26koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den administrazio gestorien estatuko VIII. hitzarmen kolektiboa. **2019-17591 xedapena - 26 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2019/11/30

- **OGASUN MINISTERIOA. - Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta balio erantsiaren gaineko zerga.** - HAC/1164/2019 Agindua, azaroaren 22koa, zeinaren bitartez garatzen diren, 2020. urterako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aurreikuspen objektiboaren metodoa eta balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen berezi sinplifikatua. **2019-17252 xedapena - 69 or.**

2019/11/02

- **ESPAINIAKO BANKUA. - Kreditu erakundeak.** - 4/2019 zirkularra, azaroaren 26koa, Espainiako Bankuarena, kredituko finantza establezimenduei, finantza informazio publikoaren eta erreserbatuaren arauai eta finantza egoeren ereduai buruzkoa. **2019-17286 xedapena - 16 or.**

- **MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. - Energia elektrikoa.** 3/2019 zirkularra, azaroaren 20koa, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarena, zeinaren bitartez ezartzen diren elektrizitatearen handizkako merkatua eta sistemaren operazioaren kudeaketa arautzen dituzten metodologiak. 2019-17287 xedapena - 18 or.

2019/12/04

- **GORTE NAGUSIAK. - Premiazko neurriak. -**
 - Ebazpena, 2019ko azaroaren 27koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitara dadila urriaren 31ko 14/2019 Errege Lege-dekretuaren konbalidazio-akordioa. Errege Lege-dekretu horren bitartez, premiazko neurriak hartzen dira administrazio digitalaren, sektore publikoaren kontratazioaren eta telekomunikazioen esparruan, segurtasun publikoko arrazoiak direla-eta. 2019-17464 xedapena - 1 or.
 - Ebazpena, 2019ko azaroaren 27koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitara dadila azaroaren 22ko 17/2019 Errege Lege-dekretuaren konbalidazio-akordioa. Errege Lege-dekretu horren bitartez, premiazko neurriak hartzen dira sistema elektrikoari eragiten dioten ordainsari-parametroen beharrezko moldaketarako eta erantzuna ematen zaio sorkuntzako zentral termikoen jarduera eteteko prozesuari. 2019-17466 xedapena - 1 or.
- **GORTE NAGUSIAK. - Gizarte Segurantzaren Aurrekontuak. -** Ebazpena, 2019ko azaroaren 27koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitara dadila azaroaren 18ko 16/2019 Errege Lege-dekretuaren konbalidazio-akordioa. Errege Lege-dekretu horren bitartez, Gizarte Segurantzaren aurrekontuaren gauzatzearen inguruko neurriak hartzen dira. 2019-17467 xedapena - 1 or.
- **LURRALDE POLITIKA ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. - Egun baliogabeak. -** Ebazpena, 2019ko azaroaren 27koa, Funtzio Publikoaren Estatuko Idazkaritzarena, zeinaren bitartez ezartzen den, Estatuko Administrazio Orokorren esparruan, 2020. urterako egun baliogabeen egutegia, epeak kontatzeko. 2019-17468 xedapena - 3 or.

2019/12/06

- **OGASUN MINISTERIOA. - Administrazio Publikoen kontratuak. Ogasun Publikoa.** - 716/2019 Errege Dekretua, abenduaren 5koa, honako hauek aldatzen dituen: 773/2015 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onetsitako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren zenbait agindu aldatzen dituen, eta 700/1988 Errege Dekretua, uztailaren 1koa, Aurrekontuen Lege Orokorren VII. tituluan ezarritako arau-hausteen ondoriozko kontabilitate-erantzukizuneko administrazio-espedientei buruzkoa. **2019-17608 xedapena - 6 or.**
- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Premiazko neurriak.** - TMS/1175/2019 Agindua, abenduaren 4koa, zeinaren bitartez ematen diren irailaren 20ko 11/2019 Errege Lege-dekretuan jasotako lan-arloko eta Gizarte Segurantzako neurriak aplikatzeko arauak (11/2019 Errege Lege-dekretua, irailaren 20koa, denboraleek eta bestelako hondamendi-egoerek eragindako kalteak arintzeko premiazko neurriak onartzen dituen). **2019-17609 xedapena - 8 or.**
- **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATEKO MINISTERIOA. - Medikamentuak.** - 717/2019 Errege Dekretua, abenduaren 5koa, zeinaren bitartez aldatzen den industrialki fabrikatutako gizakientzako sendagaiak baimentzeko, erregistratzeko eta banatzeko prozedura arautzen duen urriaren 11ko 1345/2007 Errege Dekretua. **2019-17611 xedapena - 17 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2019/12/04

- **OSASUN SAILA.** - 187/2019 DEKRETUA, azaroaren 26koa, edari alkoholduen, tabako-produktuen eta nikotina aska dezaketen gailuen seinaleztapenari buruzkoa. **5590 xedapena - 2 or.**

2019/12/05

- **SEGURTASUN SAILA.** - AGINDUA, 2019ko azaroaren 28koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita agindu bat, hain zuzen ere, garatzen duena nola bete behar diren erregistro-betebeharrak eta Ertzaintza informatzeko betebeharrak objektu erabiliak salerosi edo konpontzeari dagokionez, plataforma digitalak barnean hartuta. **5310 xedapena - 1 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2019/11/02

- **BATZAR NAGUSIAK. - foru arauak.** - 20/2019 Foru Araua, azaroaren 20koa, Arabako Foru Aldundiaren zehapen araubidea arautzen duen maiatzaren 30eko 17/1993 Foru Araua indargabetzen duena. **3817 xedapena - 2 or.**
- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. - Foru gobernu kontseiluaren foru dekretuak.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 52/2019 Foru Dekretua, azaroaren 26koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren Berdintasun Batzorde Iraunkorraren sorkuntza, osaera eta funtzionamendua. **3857 xedapena - 3 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2019/12/05

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2291/2019 FORU AGINDUA, azaroaren 27koa. Honen bidez, hiru eredu hauek onesten dira: Gerorapena edo zatikapenaren eskaera L13 eredua, Ordainketa geroratzeko eskabidean eskatutako informazioa eta dokumentazioa aurkeztu izanaren frogagiria AS1 eredua eta Bideragarritasun-plana PV1 eredua. **1 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): [Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO